

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

### - Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantenduko dituzue bezeroak?

Proiektuaren hasieran, oraindik gure ideiak ez du ospe handia izango, beraz, egunkarietan albiste laburrak jartzea pentsatu dugu. Google-en Blogger bat sortzea ideia ona izango litzateke, horrela, mundu guztiak albistea ikusteko, linka konpartitzeko eta iritzia emateko aukera izango du.



Proiektua ospetsua bihurtzen bada, telebistan albiste bat eta Interneten publizitatea idatziko genuke, Youtuben eta Spotify-en adibidez.

Bezero berriak erakartzeko, haiei finantzazio-plan bat eskaintzea, puntu positibo bat izan liteke, horrela bezero gehiago izango genituzkeelako interesaturik. Finantzazio- plana, interes gabea izango zen eta produktua, 12 hileetan zehar finantzatzeko aukera izango zukeen bezeroak.